



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko ekainaren 17a

80. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen erreko-  
nozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak onetsitako irizpena  
(3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Interpelazioa, Nafarroako enpresa munduan euskara erabiltzearen eta sustatzearen gaineko politika oroko-  
rrari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako bide publikoei eta ibilbide ber-  
deei buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Nafarroako  
Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak  
aurkeztu dute (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazien-  
teei berma diezaien eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak eskuratzea, Europako eta Espainiako  
praktika klinikoko gidetan gomendatzen denari jarraikiz. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH  
Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta  
Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu argi eta da irmoan adieraz dezan Nafa-  
rroako Pirinioak xede alderdikarietarako erabiltzearen aurka dagoela. Carlos Pérez-Nievas López de Goi-  
coechea jaunak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua-  
ren 4.2 eta 5.2 artikulua ken ditzan. Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko  
Batzordean izapidetzea (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Nafarroan hezkuntza itun bat  
lortzeko eragile aktiboa izateko. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (14. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak Nafarroako toki entitateen interesen defentsan egindako lana. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie errefuxiatu guztiei. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarrari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (16. or.).

—Galdera, Nafarroako kultur ondarearen narriadurari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).

—Galdera, Nafarroako kultur ondarearekin lotuta ezarri diren zehapenei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).

—Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 27, 28 eta 29 artikuluetan xedatutakoa ezin betetzearen gaineko txostenei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).

—Galdera, Kultura Departamentuak ondare historikoaren inguruan hartu edo emandako erabaki eta txostenen aurka ezarritako jarduketa judizialei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).

—Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 29.1 artikuluan xedatutakoa bete eta beteazteari buruz Kultura Departamentuak emandako jarraibideei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).

—Galdera, balio artistiko eta kulturala duten Nafarroako higiezinak kontserbatzeko behar diren jarduketei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (20. or.).

—Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko igerilekuek bete beharreko higieze eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretua betetzeari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (20. or.).

—Galdera, Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroaren (AKZ) informazioa Barne Arazoetako Ministerioaren mendeko beste polizia-zentro batzuekin koordinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

—Galdera, Guardia Zibila Nafarroako Gobernuako larrialdi zerbitzuekin koordinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

—Galdera, Valle de Odieta SCLk “bio-abeltegia” hitza Caparrosoko abeltegitzarraz behar ez bezala erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

—Galdera, Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

—Galdera, Lan Osasunaren Planari (2015-2020) eta Lan Osasunaren Ekintza Planari (2017-2020) buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

—Galdera, kontu-hartzaitza delegatuak FPP2 maskaren hornidura-kontratu bat dela-eta emandako eragozpen-oharrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).

—Galdera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean guztira jasotzen diren hobarien zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).

—Galdera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean aurreikusitako hobariak diru-sarrera fiskaletan eragin duten murrizketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

—Galdera, Osasun Departamentuak osasun arloan egindako 2021eko gogobetetasun-inkestari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

—Galdera, Ukrainako egoerara bideratutako dohaintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).

—Galdera, Estudios Melitón SL merkataritza-enpresari instalazioak errentan hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

—Galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko diseinatu duen programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.**

*HERRITARREKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak onetsitako irizpena. Proposamen hori 2022ko maiatzaren 6ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**IRIZPENA**

Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak 2022ko ekainaren 15ean eta 15an egindako bilan onetsia.

**Foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.**

**ZIOEN AZALPENA**

Apirilaren 10eko 16/2019 Foru Legeak arautzen du eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko Nafarroako sistema. Zehazki, 12. artiku-

luan, biktimek osasungintzako arretarako nahiz kalte fisiko, psikologiko edo materialengatiko ordainak jasotzeko daukaten eskubidea zehazteari dagokionez, igorpena egiten du apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeak, Terrorismoaren biktimei laguntzekoak, xedatutakora. Igorpen horrek problema batzuk sortzen ditu aplikatua izateko.

Terrorismoaren biktimei laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeak erreparazio-neurrien multzo bat ezartzen du (kalte-ordainak, laguntzak), Estatuak eman litzakeen horien osagarri gisa. Halatan, Nafarroako kalte-ordainen eta laguntzen zenbatekoa izanen da Estatuak Administrazio Orokorra ematen dituen kopuruen % 30ekoa. Alabaina, motibazio politikoko biktimei ez die Estatuak inoiz kalte-ordainik eman, eta horrek ginderamatzake existitzen ez den estatu-laguntza bati osagarri halako bat jartzearen ezintasunera.

Baldin eta % 30aren laguntza osagarria motibazio politikoko egintzen biktimentzako laguntzen muga gisa aplikatuko balitz, horrek esan nahi luke legezatu egiten dela tratu-desberdinkerriko egoera nabari bat: batetik leudeke terrorismoaren biktimak, zeinek Estatuaren kalte-ordaina gehi jada aipaturiko osagarri autonomikoa jasotzen baitute, eta bestetik, motibazio politikoko biktimak, zeinek kalte-ordain gisa % 30 baizik ez bailukete jasoko, jasan eta frogaturiko kalteengatik. Horrekin ez da tratu-berdintasunik bermatzen biktima-talde desberdinen artean (terrorismoaren biktimak eta motibazio politikoko biktimak), halatan kontraesan nabarmenean eroriz biktimei diskriminaziorik ezaren eta tratu mesedegarriaren printzipioarekiko, zeina martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen 5.3 artikulua jasotzen baitu.

Terrorismoaren biktimei laguntzeko Foru Legean, kalte-ordaina izan dezaketen kalte psikiko dira

baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua eta ezintasun iraunkor osoa. Horrenbestez, terrorismoaren biktimentzako foru araudia hertsiki aplikatuz gero, motibazio politikoko biktimen kasuan ezin izanen zaie kalte-ordainik eman ezintasun iraunkor partzialari loturiko kalte psikiko edo psikologikoen kasuei, ez eta baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorrei edo aldi baterako ezintasunari ere, are Estatuak kalte-ordain horiek terrorismoaren biktimentzat aurreikusitako egiten baditu ere.

Bestetik, martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian Nafarroako Gobernua gaitzen da erregelamenduzko garapena egin dezan eta, zehazki, terrorismoaren biktimei buruzko legediak aurreikusitako kalte-ordainak eta laguntzak doitu eta egokitu ditzan legedi horren helburuetara. Erregelamenduzko garapenean biktimen kolektiboek (terrorismoaren eta motibazio politikokoek) jasotako kalte-ordainak elkarrengana hurbiltzeko aurreikusten den doikuntza horrek eragozpen teknikoak ditu, begi-bistako arriskua izanik gehiegizko araupetze batean erortzea, mugatua baita erregelamendu bidezko doikuntza-ahalmen hori. Doitzeak ez du legea eraldatu edo mutatzeko modurik ematen; hori dela-eta, erregelamendu bitartezko doikuntza horrek ezin izanen du kolektibo horien arteko tratu-desberdinkeria onbideratu.

Azken batean, bai 12. artikulua aurreikusitako igorpenak bai Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamenduzko garapenak problema-multzo bat dakarte aplikatuak izaterakoan, foru lege mailako araugintzazko konponbidea behar dutenak.

Hori guztia dela-eta, aldaketa honek xede du Terrorismoaren biktimei laguntzeko Foru Legerako igorpena gaintzea, motibo politikoengatik indarkeria jasan duten pertsonen aldeko prestazio zehatzak ezartzea, biktima-kolektibo bereiztuen arteko babes-berdintasuna bermatzea (terrorismoaren biktimak/indarkeria politikoaren biktimak) eta, azkenik, behar den segurtasun juridikoa ekartzea biktimei eta laguntzen xede diren pertsonen.

**Artikulu bakarra.** Aldatzea 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

**Bat.** 2. artikulua bigarren paragrafoa aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Baldin eta, pertsona baten giza eskubideen urraketaren zuzeneko ondorio gisa, haren heriotza

gertatu bada, haren kausadunek eskubidea izanen dute biktima-aitorpena eskatzeko eta diruzko konpentsazioa jasotzeko, foru lege honen 12.5 artikuluan horretarako ezartzen diren erregelei jarraikiz”.

**Bi.** 9. artikuluko 1. apartatua aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“1. Eskabideak foru lege honen esparru subjektiboan aipatzen diren pertsonen sustatu eta aurkeztu ahalko dituzte. Legitimazio aktiboa izanen dute, halaber, aipatutako esparrukoak izan ez arren, foru lege honen aplikazio eremuan sartzen diren egitateak zuzenean eta zorrozki ezagutu dituzten pertsonen edo entitateen. Eskabide horiek lau urte eta sei hilabeteko hasiera-epean aurkeztu ahalko dira, arlo horretan eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindua, eskabide-aurkezpenerako epea irekitzen duena, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera”.

**Hiru.** 11. artikuluko 3. apartatua aldatzen da. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“3. Ebazpena hilabeteko epean jakinaraziko zaio interesdunari, eta, kasua bada, bidezko diren errekurtsoak aurkezteko aukera adieraziko zaio.

Prozedura ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hamasei hilabetekoa izanen da, salbu eta artikuluko 1. apartatuan oinarri harturik epea luzatua izan den kasuan”.

**Lau.** 12. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“12 artikulua. Biktima deklaratzearen ondorioak.

1. Foru lege honen xedapenen arabera biktima deklaratuak diren pertsonen aitortuta edukiko dituzte, osasun arretaz gainera, kalte fisiko, psikologiko edo materialengatik ordain ekonomikoak.

Ordain ekonomiko horiek bateragarri dira gertakari berengatik beste erakunde batzuegandik jasotzera zilegituta egon litezkeeneko beste kopuruekin, baldin eta foru lege honen babesean aitortuak izan diren ordain ekonomikoak baino baxuagoak badira. Ondorioz, beste entitate batzuegandik jasotako edo haiek aitortutako kopuruak baxuagoak direnean Foru Komunitateko Administrazioak emandakoak baino, hartzaileak azken horrengandik jasoko du bi laguntza horien arteko alde bakarrik.

2. Jasandako kalte fisiko edo psikologikoengatik ordain ekonomikoaren zenbatekoak honakoak izanen dira:

- a) Heriotzagatik: 250.000 euro.
- b) Baliaezintasun handiagatik: 500.000 euro.
- c) Ezintasun iraunkor absolutuagatik: 180.000 euro.
- d) Ezintasun iraunkor osoagatik: 100.000 euro.
- e) Ezintasun iraunkor partzialagatik: 75.000 euro.

f) Aurreko apartatueta aurreikusitako kalte-ordainen zenbatekoak handiagotu eginen dira kantitate finko batean, kasuko errenta-adierazle publikoaren 20 hilabete-kuotakoa, heriotza-unean edo lesioa eragin zuen indarkeriazko ekintzaren unean biktimarekiko mendekotasun ekonomikoa zeukaten ondorengo ahaideetako edo harreraren hartutako adingabeetako bakoitzarengatik.

g) Baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrenagatik: zenbatekoa zehaztuko da eskabidea aurkezteko unean indardun den sistema erabiliz, zeinaren bidez baloratzen baitira pertsonen zirkulazio-ezberharretan eragindako kalte eta galerak, eta baremo gisa harturik lan-istriputik edo lanbide-gaixotasunetik eratorritako behin betiko eta baliaezintasunik gabeko lesio, mutilazio eta deformazioengatik kalte-ordainen zenbatekoei buruz gizarte-segurantzako legedia aplikatuz suertatzen den hori. Guztizko zenbatekoak ez du ezein kasutan gaintutuko ezintasun iraunkor partzialerako adierazitako zenbatekoa.

h) Aldi baterako ezintasunagatik: izanen da aldi baterako ezintasuneko egoeran aurkitzen deneko epeari dagokion eguneroko errenta-adierazle publikoaren bikoitza. Mugatzat izanen du hileko 18 kuota (Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa/egun x 2, hileko 18 kuotako mugaraino). Ondorio horietarako, ulertuko da biktima aldi baterako ezintasun egoeran dagoela osasungintza-arreta jasotzen duen eta bere lanbidean jarduteko edo bere ohiko jardueretan aritzeko ezinduta dagoen bitartean.

i) Mendekotasun-egoeragatik, alorreko departamentu eskudunak biktimei edozein gradu eta mailatan aitortua, honako portzentajeetan gehituko dira Foru Komunitateko Administrazioak emandako kopuruak:

– 100eko 30eko igoera, III. gradua –mendekotasun handia, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

– 100eko 20ko igoera, II. gradua –mendekotasun larria, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

– 100eko 10eko igoera, I. gradua –mendekotasun moderatua, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

Zenbateko horiek bateragarriak izanen dira biktimiek jasotzeko eskubidea duten beste edozein zenbatekorekin, non eta ez diren kontzeptu beraren ondoriozkoak.

3. Nafarroako Foru komunitateko Administrazioak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bitartez, beharrezkoa gertatzen den osasungintza-arreta edo arreta psikologikoa emanen die biktima deklaratuak diren pertsonen, foru lege honetako xedapenei jarraikiz, ahal den heinean berreskuratze aldera kasuko gertakaria baino lehenagoko baldintzak. Hori ezinezkoa denean, eta beste zentro batzuetan eman beharrezkoa denean, administrazio horrek eskaturiko zerbitzu eta tratamendu bakoitzaren ondoriozko gastuak ordainduko dira.

Osasungintza-arretak barne hartuko du tratamendu medikoa, protesi-ezarpenera edo horien aldizkako hobekuntzak, bai eta errehabilitazio-premiaren ondoriozko gastuak ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak diagnostikaturikoa direnean.

Arreta psikologikoa jasotzen ahalko da, medikuak aurretiaz horretarako agindua emanik, indarkeriazko ekintzak eragindako edo agerian utzitako nahasmendu psikologikoen agerpenetik aurrera.

4. Kalte materialengatik ordainketek barne hartuko dituzte etxebizitzetan, gauzaki pertsonaletan, merkataritza- edo industria-establezimenduetan eta ibilgailuetan egin direnak. Kalte-konponketak barne hartuko ditu lehenagoko bizigarritasun- edo funtzionamendu-baldintzak berreskuratze beharrezkoak diren urratsak.

Kalte materialen ordainketek ordezkotza izatera izanen dute administrazio publikoek aitorturikoen edo aseguru-kontratuetatik eratorritakoen aldean, eta kontzeptu horiengatik jasotako kopuruan murriztuko dira.

5. Heriotzagatik kalte-ordainketarako eskubi-dearen titular izanen dira, erreferentziatutako heriotzaren gertaeguna harturik:

a) Hildako pertsonaren ezkontidea, legalki bananduta ez bazeuden, edo gutxienik heriotza-unearen aurreko bi urteetan zehar harekin antzeko afektibitate-harremenez elkarturik modu iraunkorrean bizi izandako pertsona, salbu eta ondorengotza amankomuna izan bazuten, ezen kasu horretan nahikoa izanen da elkarbizitza soila; eta hildakoaren seme-alabak.

b) Arestian aipatuetakorik ez egonez gero, hartzaile izanen dira, lehentasun-hurrenkeran eta hurrenkeran jarraian datozenak bazter utzirik, hildakoaren gurasoak, anai-arrebak, bilobak eta aitona-amonak.

c) Arestian aipatuetakorik ez egonez gero, elkarbizitzan partaide izandako pertsonaren seme-alabak, eta hildakoak familia-harrera iraunkorrean edo adopzioarrekoan hartutako adingabeak, ekonomikoki haren mende baldin bazeuden.

6. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasueta-ko batean elkarrekin suertatzen badira zenbait onuradun, kalte-ordainketari dagokion zenbatekoaren banaketa honela egingen da:

a) Kasua bada 5.a) apartatuan jasotzen dena, kopurua erdibanatu egingen da, erdi bat dagokiola legalki banandu gabeko ezkontideari edo elkarbizitza-partaideari, eta bestea seme-alabei. Azken erdi hori zati berdinetan banatuko da.

b) Kasua bada 5. b) apartatuan jasotzen dena, kopurua zati berdinetan banatuko da ahaidetasun-lotura bereko pertsonen artean.

c) Kasua bada 5.c) apartatuan jasotzen dena, kopurua zati berdinetan banatuko da batera suertatzen diren onuradunen artean.

7. Artikulu honen ondorioetarako, pertsona batek zenduarekiko mendekotasun ekonomikoa duela ulertuko da heriotza-unean horren kontura bizi bazen osoki nahiz partzialki eta ez zuen eskuratzen, urteko kontaktetan, une hartan indarrean zegoen errenta-adierazle publikoak urteko kontaktetan ere zeukan zenbatekoaren ehuneko 150 baino gehiagoko edozein izaeratako errenta edo diru-sarrerarik”.

Bost. 16. artikuluko 5. apartatua aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“5. Administrazio publikoko kide izan gabe Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeko kide diren pertsonen eskubidea izanen dute, beren eginkizunetan aritzeagatiko ordain gisa, Nafarroako Gobernuaren erabaki bidez ezartzen diren dietak eta lokomozio- edo bidaiatze-gastuengatiko sariak jasotzeko. Egun bakoitzeko ez da sortuko dieta bat baino gehiagorako eskubiderik”.

Sei. Bigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Bigarren xedapen gehigarria. Kredituak gaitzea.

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, xedatuko du foru lege honek ezarritako laguntzei aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren kredituak gaitzea”.

Zazpi. Hirugarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Erregelamenduzko garapena.

Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak jaulkiko ditu foru lege honetan jasotako aurreikuspenak garatu eta aplikatzeko”.

**Azken xedapen bakarra.** Foru legeak indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Interpelazioa, Nafarroako enpresa munduan euskara erabiltzearen eta sustatzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa.**

### *MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako enpresa munduan euskara erabiltzearen eta sustatzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa (10-22/ITP-00019).

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Interpelazioa, Nafarroako enpresa munduan euskara erabiltzearen eta sustatzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako bide publikoei eta ibilbide berdeei buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan.**

### *EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako bide publikoei eta

ibilbide berdeei buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan (10-22/MOC-00056).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Europar Batasunean ez dago natur bideei buruzko araudi berariazkorik. Europako Parlamentuan ekimen batzuk izan dira, gaiaren gaineko araudi bat prestatzera premiatzen dutenak, baina oraingoz ez dira gauzatu, natur ingurune eta bide-etarako irispideari dagokionez estatuetakoa legedien arteko desberdintasun handiak sortzen dituen zailtasunengatik. Kontuan hartu behar da gaia oso errotuta dagoela toki zein erregio esparruan.

Hala ere, izaera ezberdineko ibilbide jasangarriak sortzeak jasotzen du, bai, bultzada, europar esparruko erakunde publiko batzuen aldetik, eta horien artean dago, esate baterako, Nafarroako Gobernu bera, zeinak halaber parte hartu duen EuroVelo sare ezagunean, elkarloturiko bizikletazidor asko dituen, Europa bizikletaz zeharkatzea ahalbideturik, distantzia luzeko 17 ibilbiderekin.

Izan ere, natur ibilbideak sortzea eta natur turismoaren sustapena modu argian agertzen dira Europar Batasunaren ingurumen politiketan. Hala, bide berde edo natur bideek politika publikoak gauzatzen dituzte, zeinek, alde batetik, laguntzen baitute helburu gisa ingurumen-babesa eta klima aldaketaren aurkako borroka erdiesten, eta bestalde, baliabide turistiko garrantzitsua eskaintzen baitute natur turismo jasangarri eta aktiboaren esparruan..

Era horretan, azpiegitura berdea zaintzeak eta indartzeak berriro garrantzia hartzen du 2020-2030 aldirako Europar Batasunaren Biodibertsitateari buruzko Estrategian, eta hor garrantzitsua da korridore ekologikoen sorrera bultzatzea, Europan zeharreko Naturaguneen Sare baten parte izanen direnak. Haien bidez isolamendu genetikoak ekidin, espezieen migrazioa erraztu eta ekosistema osasuntsuak hobetzen dira. 2020-2030 aldirako Europar Batasunaren Biodibertsitateari buruzko Estrategiak botere publikoak premiatzen ditu azpiegitura berde eta urdinen arloko inbertsioak sustatu eta lagundu ditzaten, eta ekintzak egin ditzaten estatu kideen mugaz gaindiko lankidetzaren bidez, Europako lurraldearteko lankidetzaren barne.

Izan ere, Espainiako Estatuan, joan den mendeko laurogeita hamarreko hamarkadatik, bide berdeak sortzearen politika garatu da, trenbide-trazadura zaharrak berreskuratuz. Ekintza horiek helburu hirukoitza zuten eta dute: alde batetik,

azpiegiturak sortzea, haien inguruetan landa-zonaldeen garapen ekonomikoari lagundu ahal izateko. Beste alde batetik, baliabide turistiko berriak sortzea, bestelako bisitariak erakartzeko, turismo jasangarriaren kontzeptuaren barruan. Eta, hirugarrenez, naturaguneak lehengoratzen eta kontserbatzen laguntzea, azpiegitura ez-erabiliak berreskuratuz.

Era horretan, ibilbide berdeek, beren tipologia ezberdinekin (bide berdeak, natur bideak eta autonomia erkidegoetako gisako beste figura batzuk) garrantzia hartzen dute Europako eta estatuetakoa ingurumen politiketan, azpiegitura berdearen parte direlako, korridore ekologikoen eginkizunak betetzen dituzten heinean.

Turismoaren ikuspegitik, bide berdeak, natur bideak eta, oro har, natur ibilbideak azpiegitura ingurune turistikoak dira, oinarri dutenak, hain zuzen ere, natur turismo aktibo bat garatzea, ez-urtarotarra, naturgunerako errespetuzko irispidean oinarritua; alegia, turismo jasangarri batean; eta lortu dute balioan jarri eta balio funtzional berri bat ematea bideei, abelbideei edo erabilerarik gabeko trenbide-trazadura zaharrei. Horrela, ibilbide tradizionalak berreskuratuz dira, landa eremuko zonaldeen aberastasun kulturalarekin lotuz, hiri eremuko zonaldeak landako eremu horietara hurbilduz eta aisialdi osasungarria zein joan-etorrietarako modu jasangarriak sustatuz.

Bide berdeek eta natura bideek sarrera ezin hobe dute Espainiako Turismo Jasangarriko 2030erako Estrategian, 2019an onetsi baitzen, bai eta 2018-2025 aldirako Nafarroako Turismo Plan Estrategikoan ere, helburu estrategikoetako bat baitu Nafarroa turismo jasangarriaren erreferentzia bihurtzea eta eskaera ez-urtarotarraren fluxuak atzematea, baliabide guztiz egokia baitira horretarako. Nafarroan zikloturismoa garatzeko planak ere apustua egiten du era horretako bideak sortu eta hobetzearen alde, ziklismoarako azpiegitura diren heinean.

Izan ere, Nafarroa apustu garrantzitsua egiten ari da era horretako azpiegitura turistiko berdea sortzeko eta, hala, Plazaola, Irati, Tarazonica, Bidasoa eta Vasco-Navarro izeneko bide berdeak sortu edo hobetu dira, Erdibidea deitutakoaz gain, eta Donejakue bidea ere gehitu ahalko litzateke.

Bide berdeen inpaktua oso esanguratsua da toki- eta eskualde-esparruan, baina harago iristen da, Nafarroako baliabide turistiko nagusi bat izan gabe ere, gero eta indar handiagoa hartzen ari direlako, turismo aktiboaren eta turismo jasangarriaren gorakadarekin batera. Horren froga dugu Nafarroan 2020an bide berdeetako hainbat puntu-



tan erregistratutako erabiltzaileen kopurua eta 2021ean erabilerak izandako igoera esanguratsua.

Beraz, ibilbide horiek interes agerikoa dute turismoaren ikuspegitik, batez ere eskualde-esparruan, baina baita ere Nafarroa osoan.

Hala ere, errealitate horren eta garapen gero eta handiagoaren aldean azpiegitura horien arauketa eza dugu.

Eskumenen ikuspegitik, Estatuak zenbait egin-kizun dauka aztergai dugun gai honetan, baina Estatuaren eginkizun horiek oinarritzko izaera dute, hau da, haien xedea da homogeneousan bat lortzea alderdi jakin batzuk aplikatzerakoan, zeinak, edonola ere, autonomiaz gaindiko mailan kokatu behar diren.

Natura bideen arloan Estatuari oinarritzko legediko eskumenak dagozkie, gai hori sartzan delako Espainiako Konstituzioaren 149.23 artikulua esparruan, Estatuan jartzen baitu ingurumenaren arloko oinarritzko eskumena.

Aipatu eskumena oinarri, natura bideak arautu ziren 21/2015 Legearen 6. xedapen gehigarriaren bidez. Alde batera utzita legegintzako teknika hobegarria dela (oinarritzko izaera duen arauketa bat sartzan da Mendiei buruzko Legea aldatzen duen legearen xedapen gehigarri batean, gaiarekin zuzeneko lotura eduki gabe) eta edukia ez dela oso xehea, aipatu arauketaren bidez Estatuak natura bideekin lotutako eskumen guztiak hartzen ditu.

Konstituzio Auzitegiak, ordea, 118/2017 Epaia- ren bidez, legegilea zuzendu zuen eta ezarri zuen, gainerako guztian eskuduna Estatuako Administra- zio Orokorra bada ere, natura bideak eraikitzeko obrei eta haien mantentzeari dagokienez eskume- nak autonomia-erkidegoetan geratzen direla, toki entitateak eskumenen banaketatik kanpo utziz.

Horiek horrela, autonomia-erkidegoei dagokie, ingurumenaren gaitan, Estatuako oinarritzko arau- dia legez garatzea, bai eta eginkizun exekutiboak ere.

Autonomia-erkidegoetako legezko garapena dela-eta, autonomia-erkidego batzuetan gaiaren gaineko lege autonomikoak onetsi dituzte: Errioxa (Errioxako ibilbide berdeen sarea arautzen duen martxoaren 26ko 5/2003 Legea); Murtziako Erre- gioa (Murtziako Erregioko ibilbide seinaleztatuei buruzko martxoaren 1eko 2/2019 Legea); Extre- madura, landa bideen arauketa bat daukana Extremadurako Nekazaritzari buruzko martxoaren 24ko 6/2015 Legean; Gaztela-Mantxa, errepedeak eta bideak arautzeko lege bat daukana (Gaztela-

Mantxako Errepideei eta Bideei buruzko abendua- ren 28ko 9/1990 legea). Beste alde batetik, Kata- luniak ingurune naturalerako sarrera motordunera- ko lege bat dauka (Ingurune naturalerako sarrera motordunerako uztailaren 27ko 9/1995 Legea)

Nafarroak eskumena du Foru-erkidegoko lurraldean osorik garatzen diren bideen arloan. Eskumen hori Nafarroako Foru Eraentza Berreza- rri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49. artikulutik dator eta izaera historikoa du. Izan ere, aurrekariak daude, gutxienez ere XVII. eta XVIII. mendeetara arte iristen direnak, Nafarroako foru erakundeek bideen arloan arauketa eta kudeaketa berekia egitearen gainekoak. Bere izaera histori- koagatik, bideen arloko eskumen forala Estatu- aren oinarritzko araubidetik harago joan daiteke. Baina, arauketa berekirik gabe, Estatuako araubide komunak ordezko zuzenbide gisa jokatzan du.

Nafarroan badira bideen arloa arautzen duten manuak, baina bereziki nabarmentzen da, oro har, haien dispersioa. Salbu eta Abelbideei buruzko Foru Legea eta Kirol Zidorrei buruzko Foru Dekre- tua, Nafarroan ez dago arloko arauketa berekirik, foru eskumenen irismena gorabehera.

Problematika horren jakitun, Plazaola Turismo Partzuergoak azterlan bat eskatu zuen, Nafarroa- ko Unibertsitate Publikoak egin zuena, Institute Of Smart Cities delakoaren bidez eta Zuzenbide Administrazioan doktore irakasle laguntzaile Aritz Romeo Ruizen zuzendaritzapean.

Izan ere, Nafarroako Gobernuaren jabetzako Plazaolaren bide berdean mantentze-lanak egiten dituzte bideak zeharkatzen duen lurraldean diren toki entitateek, baina ez dago inolako hitzarmenik administrazio publiko bakoitzaren betebeharrak eta eskubideak arautzeko, ez eta Nafarroako arauketa esparrurik ere, azaltzen ari garen bezala. Halatan, etengabe gertatzen dira ziurgabetasun juridikoko egoerak, inguruabar ezberdinetan joku- tu behar den moduari buruz. Bide berdea mantent- zearen gaineko planifikaziorik ere ez dago: pre- miaren arabera jokatzan da ohiko luiziak gertatzen direnean, non toki entitateek Nafarroako Gober- nuari ohartarazten dioten eta hori, departamentu- ren baten bidez, arazoei erantzuten saiatzen da. Beste alde batetik, turismoaren ikuspegitik, age- rian geratzen da planifikaziorik eza, toki entitateek mantentze-lanak egiterakoan, udalerrri bakoitzak modu eta denbora ezberdinean ekiten baitio bidea konpontzeari, bisitariari homogeneousan gutxiko irudia eman ez tarte berean.

Hau da, alde batetik Nafarroa azpiegitura ber- deak bultzatzen ari da, ikuspegi askotatik oso beharrezkoak baitira, baina beste alde batetik

haien gaineko arauketarik eza gero eta larriagoa da, agerian utziz mantentze eta planifikazio arazoak. Hau da, ezinezkoa da Nafarroa turismo jasangarriaren erreferente bihurtu nahi izatea, ibilbide eta azpiegitura berde berriak bultzatuz, prozesu horrekin batera arauketa esparru egokirik ez badago.

Beste alde batetik, hutsune juridikoaz gain, deigarria da Nafarroako sare bat ez egotea ibilbide jasangarri horiek lotzeko, landa eta auzo bideak, mendi bideak, natura bideak eta bide berdeak integratzeko, eta are hiri eremuko beste motako bide batzuk ere, bide berdea izateko bokazio argia dutenak, esate baterako, ibai parkeak.

Seinale eta planifikazio berarekin egindako sare bat, ahalbidetuko duena erabiltzaileei ibilbideak proposatzea gaiaren, eskakizun fisikoaren, garraibidearen edo zonaldearen arabera eta are aukera ematea ere erabiltzaile bakoitzak bere ibilbide propioa ezar dezan.

Areago, ikuspegi praktiko batetik, egokiena litzateke hori guztia foru lege berean araututa egotea.

Ildo horretatik, eta azaldutako guztia aintzat harturik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Legebiltzar honetan Nafarroako bide publikoei eta ibilbide berdeei buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, aipatu legea onesten ez den bitartean Plazaolaren bide berdea mantentzeko hitzarmen arautzaile bat adostu dezan ibilbidean dauden toki entitateekin, edo hala ez bada, Plazaola Turismo Partzuergoarekin berarekin, non zehaztuko baitira administrazio publiko bakoitzaren eta entitate turistikoaren betebeharrak eta eskubideak .

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako bide publikoen eta ibilbide berdeen sare bat sor dezan.

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteei berma diezaien eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak eskuratzea, Europako eta Espainiako praktika klinikoko gidetan gomendatzen denari jarraikiz.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezker talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteei berma diezaien eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak eskuratzea, Europako eta Espainiako praktika klinikoko gidetan gomendatzen denari jarraikiz (10-22/MOC-00057).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, aurikula-fibrilazioa duten pazienteendako eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileei buruzkoa, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko

Aurikula-fibrilazioa bihotz-arritmia ohikoena da, eta Nafarroan 16.500 pertsona ukitzen ditu. Aurikula-fibrilazioa, gaur egun, osasun publikoko arazo da.

Aurikula-fibrilazioaren konplikazio suntsitzaileena iktusa da, eta Nafarroan 2021ean gertatutako iktusen arrazoi nagusia kardioenbolioa izan zen. Urtero, 1.240 iktus kasu berri sortzen dira Nafarroan, haietariko % 20 aurikula-fibrilazioarekiko sekundarioak.

Iktusa Nafarroan heriotzen lehendabiziko kausa da emakumeen artean, eta bigarrena gizonen artean. 2021ean Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Iktus Unitatean 1.022 paziente sartu ziren, baina aipagarriena da iktusen % 80 baino gehiago saihesgarriak direla.

Aurikula-fibrilazioarekiko sekundarioa den iktusa antikoagulatzaileen bidez aurreikus daiteke. Aurikula-fibrilazio ez balbularraren kasuan Espainian antikoagulatzaileen bi mota daude baimenduta: K bitamina-antagonistak eta eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak.

Lehenbizikoek eragin antikoagulatzaile eze-gonkorra dute eta monitorizazio estua behar dute, bai eta dosiak doitzea ere, bermatze aldera pazienteek antikoagulazio egokia dutela.

Espainiako Kardiologia Elkartearen arabera, Nafarroan K bitamina-antagonisten bidezko antikoagulazioa duten pazienteen % 45,8 gaizki kontrolatuta daude, alegia, gure erkidegoan horien bidez tratatutako 3.280 pertsonak ez dute lortzen TTD egoki bat.

Eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileek, berriz, eragin antikoagulatzaile egonkorra dute eta ez duten behar ez aldizkako kontrolik ez dosiaren doiketarik ere. Mota horretako sendagai guztiek erakutsi dute nabarmen murrizten dituztela iktusak eta garezurreko barneko odoljarioak K bitamina-antagonistekin alderatuta (ikerketako azterlanetan zein bizitza errealekoetan). K bitamina-antagonistekin alderatuta, eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileek beste sendagaiekiko eta elikagaiekiko interakzio gutxiago dute eta hori oso garrantzitsua da, aurikula-fibrilazioa duten paziente gehinak adineko pertsonal direlako, gaixotasun bat baino gehiago dutenak eta, ondorioz, sendagai batzuk hartu ohi dituzte.

Halaber, eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileek erakutsi dute kostuarekiko eraginkorrak direla, Acenocumarolarekin alderatuta, gehien erabiltzen den K bitamina-antagonista baita.

Europako eta Espainiako elkarte zientifikoek gomendatzen dute eragin zuzeneko ahotiko

antikoagulatzaileak erabiltzea aurikula-fibrilazioa duten pazienteendako lehen aukera gisa eta K bitamina-antagonistak erabiltzea bakarrik eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileek kontraindikazioa eduki edo pazienteek sendagai horiekiko aurkako eragina jasan duen kasuetarako.

Espanian eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileen erabilera Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziariaren posizionamendu terapeutikoko txostenaren menpe dago, non aipatu sendagai horien erabilera kasu berezietara murrizten den. Gainera, eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak ikuskapen-bisatuaren menpean daude, zeina bat ez datorren Europako praktika klinikoko giden gomendioekin, eta defizit bat dago K bitamina-antagonisten bidez gaizki kontrolatutako pazienteak behar bezala identifikatzerakoan.

Espania da eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak praktika klinikoko giden gomendioei jarraikiz erabiltzen baimentzen ez duen Europako herrialde bakarra. Beste alde batetik, Nafarroa da eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileen erabilera murrizten duten autonomia-erkidegoetako bat, nahiz eta ebidentzia egon K bitamina-antagonisten aldean duten eraginkortasunari eta segurtasunari buruz.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin premiatzen du:

1. Aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteei bermatzea eragin zuzeneko ahotiko

antikoagulatzaileak eskuratzea, Europako eta Espainiako praktika klinikoko giden gomendioekin bat.

2. Eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileen bidezko ahotiko tratamendu antikoagulatzaileen hasiera malgutzea, aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteek iktusa eta/edo odol-galera handiagoa pairatzeko arrisku handia erakusten dutenean, eta/edo K bitamina-antagonisten bidez antikoagulazioa lortzeko aukera gutxi dutenean.

3. Hiru hilabetera jaitea K bitamina-antagonistetatik eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileetarako aldaketa baimentzeko epe K bitamina-antagonisten bidez antikoagulazioaren kontrol txarra duten pazienteekin.

4. Eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileek gaur egun behar duten ikuskapen-bisatua sinplifikatzea, geroagoko berrikusketara duen bisatu automatikora iraganez.

5. Osasun arloko profesionalendako alerta-sistema informatizatu bat ezartzea, garaiz identifikatu ahal izateko gaizki antikoagulatuta dauden pazienteak eta tratamendua aldatzeko neurriak aldatzeko.

6. Kalitate-auditoriak gehitzea iktusaren prebentzioan eta antikoagulazioaren kontrolean.

7. Antikoagulatutako pazienteen behatoki bat sortzea, bizitza errealeko datuak bildu ahal izateko.

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Foru parlamentariak: Patricia Fanlo, Ana Ansa, Txomin González, Mikel Buil eta Marisa de Simón

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da modu argi eta da irmoan adieraz dezan Nafarroako Pirinioak xede alderdikarietarako erabiltzearen aurka dagoela.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita modu argi eta da irmoan adieraz dezan Nafarroako Pirinioak xede alderdikarietarako erabiltzearen aurka dagoela (10-22/MOC-00058).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, batzordean eztabaidatzeko:

Martxoan iragarri zuten bezala, eta bere web orrian ikus daitekeenez, Gure Esku elkarteak irekita dauka oraindik izena emateko epea, datorren uztailaren 2an parte hartzeko "Vía Pirenaica por el derecho a decidir" izeneko erreibindikazio independentistan, zeinaren bidez euskal entitate horrek, Asamblea Nacional Catalanarekin eta Federación d'Entitats Excursionistes de Catalunya-rekin batera, Euskal Herria eta Katalunia lotu nahi dituen Pirinioetan zehar, tontorretako argi puntuen bidez.

Antolatzaileek beraiek aitortzen dutenez ekimen horren bidez "subiranotasun-etzabaida suspertu" nahi dute, autodeterminazioaren alde duten helburu partidistaren mesederako baliatuz gure ondare naturalaren osagai funtsezko bat, Unesco aitortua.

Beren webgunean azaltzen duten bezala, lehenagoko mobilizazioak hartzen dituzte eredu, esate baterako, 'Llum i llibertat', Montserrateko 131 orratz argiztatu zituen (2019), eta euskal erreplikak, 'Argi dugu bidea' lelopean Aiako Harria parke naturala, Txindoki edo Anboto mendiak argiztatu zituztenak, edo 'Cims per la llibertat' mobilizazioa (2018).

Komunikatu batean, Gure Esku euskal erakunde independentistak gogorarazi du uztailaren 2an 300 tontor baino gehiago argiztatuko dituztela - 430 kilometro inguru eginez- Pirinio osoan zehar, farol bereziak eta kopeta-argiak erabiliz, argi lerro bat eratzeko, Higer lurmuturretik, Irunen, Creus lurmuturreraino (Alt Empordá), "erabakitzeko eskubidea erreibindikatzeko" helburuarekin.

Erreibindikazio independentista horrek hartzen dituen Pirinioetako tontorren artean Baztanen edo Erronkarin dauden nafar tontorrek agertzen dira.

Hori dela-eta, talde parlamentario honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak:

1. Arbuiatu egiten du Nafarroako Pirinioak erabiltzea izaera independentista duten gure foru-erkidegoaz kanpoko ekimenak egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuak honakoetara premiatzen du Nafarroako Gobernuak:

a) Modu argi eta irmoan adieraz dezan bere aurkako jarrera, Nafarroako Pirinioak euskal eta katalan erreibindikazio independentisten kokaleku gisa helburu partidistekin erabiltzeari dagokionez.

b) Behar diren neurriak hartzea, zuzenbidearen arabera, ekidite aldera egun horretan naturagune bat, babestua eta herritar guztiek libreki gozatzekoa, okupatua izan dadin helburu partidista, partikular eta legez kanpoko baterako, zalan-tzarik gabe mugatuko baitu gune horiek modu baketsuan erabil ditzaten aipatu erreibindikazioak partekatzen ez dituztenek.

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an.

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuaren 4.2 eta 5.2 artikulua ken ditzan.**

### *LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNeko, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin Navarra Suma, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkun-

tza Departamentua premiatzen baita apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuaren 4.2 eta 5.2 artikulua ken ditzan. Mozioa 2022ko apirilaren 1eko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/MOC-00036).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Nafarroan hezkuntza itun bat lortzeko eragile aktiboa izateko.**

### *HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu Nafarroan hezkuntza itun bat lortzeko eragile aktiboa iza-

teko. Mozioa 2022ko apirilaren 1eko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/MOC-00037).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak Nafarroako toki entitateen interesen defentsan egindako lana.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak 1982an sortu zenetik Nafarroako toki entitateen interesen defentsan egindako lana.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du berrogei urte hauetan Nafarroako udal, kontzeju eta mankomunitateetan eginiko lana funtsezkoa izan dela

Nafarroako herritarrek gaur egun duten garapen eta ongizate maila lortzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du toki entitateekin lankidetzan jarraitzeko konpromisoa duela, Nafarroako toki entitateen zerbitzu publikoak, udal autonomia eta nahikotasun finantzarioa indartzeko, kudeaketa egokia garatze aldera, Federazioak duela berrogei urte sortu zenetik egindako moduan”. (10-22/DEC-00028).

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie errefuxiatu guztiei.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die beren herrialdeetatik ihes egitera behartuta suertatzen diren guztiei.

2. Nafarroako Parlamentuak aldeztu du nazioarteko legedia, Genevako Konbentzioa, giza

eskubideen arloko itunak eta Nazioarteko Zuzenbidea bete daitezela, inolako bazterketarik gabe.

3. Nafarroako Parlamentuak ekitaldi bat egingen du heldu den ekainaren 20an, 12:00etan, Nafarroan bizi diren errefuxiatuei aitortza egiteko”. (10-22/DEC-00029).

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarrari buruzkoa.***AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarrari buruz Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00188).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, eskatzen du honako galdera hau Landa Garapeneko eta Ingu-rumeneko Departamentura igortzea, idatziz erantzun dakion.

Kontuan harturik Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022

Foru Legearen 15. artikuluan aurreikusitakoa, hain zuzen ere 3.q) apartatuan Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarraren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzeko kontseilariak foru agindu bat onesteari buruzko aurreikuspena.

1. Kontuan hartuz larrialdi klimatikoa eta Klima-aldaketari buruzko Adituen Gobernuarteko Taldearen azken txostenak, noizko aurreikusten da aipatu foru aginduaren onespena?

2. Zer mekanismo aurreikusten da batzarraren gomendioak gauzatzeko?

3. Zer mekanismo aurreikusi behar da bermatze aldera batzarraren prozesua herritar guztien-ganaino hedatzea, ohar daitezen erronkaren tamainaz eta behar ditugun eraldaketa sakonez?

4. Zer mekanismo aurreikusiko da aurreikusitako zozketa egiteko, zeinak bermatuko duen batzarrean kide izan daitezkeen pertsona guztien parte hartzea?

5. Zer ezaugarri sozial (geruza) hartuko da kontuan lagina gizartearen ordezkaria izan dadin?

6. Zer irizpide erabiliko da aipatu aginduan aurreikusten den adituak hautatzeko? Eta koordinazio eta laguntza tekniko-logistikoko talderako?

Iruñean, 2020ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, Nafarroako kultur ondarearen narriadurari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako kultur ondarearen narriadurari buruz Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00189).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako kultur ondarearen narriadurari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

Lehena: Kultura Departamentuan 2005etik orain arte partikularren edo erakunde publikoen aldetik jasotako salaketa, erreklamazio eta komunikazio kopurua, haien balio artistiko-kulturalagatik babesa eta/edo katalogazioa duten higiezin narriadura egoerari dagokionez.

Bigarrena: Aipatu salaketa, erreklamazio eta komunikazioetan agertzen diren higiezin zerrenda, dataren arabera.

Hirugarrena: Kultura Departamentuak salaketa, erreklamazio eta komunikazioen aurrean egindako jarduketan zehaztapena.

Laugarrena: Aipatu higiezin guztien egungo egoerari buruzko informazioa.

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

## **Galdera, Nafarroako kultur ondarearekin lotuta ezarri diren zehapenei buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako kultur ondarearekin lotuta ezarri diren zehapenei buruzkoa (10-22/PES-00190).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Kultura Departamentuak Nafarroako kultur ondarean egindako jarduketan edo egoeraren inguruko arau-hausteei edo ez betetzei buruz ezarritako zehapenak direla-eta, hauxe jakin nahi dut:

2005etik orain arte ezarritako zehapenak, haietako bakoitzari dagozkion higiezinak, zenbaitakoak eta zioak zehaztuta.

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 27, 28 eta 29 artikuluetan xedatutakoa ezin betetzearen gaineko txostenei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 27, 28 eta 29 artikuluetan xedatutakoa ezin betetzearen gaineko txostenei buruzkoa (10-22/PES-00191).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 2005eko Foru Legearen 27, 28 eta 29. artikuluetan xedatuari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

- Aipatu artikuluetan xedatua bete ezin izatearekin loturik Ondare Historikoaren Zerbitzuan dauden txostenen kopurua.

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Kultura Departamentuak ondare historikoaren inguruan hartu edo emandako erabaki eta txostenen aurka ezarritako jarduketa judizialei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Kultura Departamentuak ondare historikoaren inguruan hartu edo emandako erabaki eta txostenen aurka ezarritako jarduketa judizialei buruzkoa (10-22/PES-00192).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Kultura Departamentuak ondare historikoaren inguruan hartu edo emandako erabaki eta txostenen aurka ezarritako jarduketa judizialei dagokienez, hauxe jakin nahi dut:

- Horien zerrenda, 1995etik orain artekoa, bakoitzaren zioak eta jarduketa judizialen emaitza zehaztuta.

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 29.1 artikuluan xedatutakoa bete eta beterazteari buruz Kultura Departamentuak emandako jarraibideei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 29.1 artikuluan xedatutakoa bete eta beterazteari buruz Kultura Departamentuak emandako jarraibideei buruzkoa (10-22/PES-00193).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen 29.1 artikuluan xedatutakoa bete eta beterazteari buruz Kultura Departamentuak emandako jarraibideei dagokienez, hauxe jakin nahi dut:

- Horren gaineko jarraibide idatzirik ote dagoen eta zein den haien edukia.

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, balio artistiko eta kulturala duten Nafarroako higiezinak kontserbatzeko behar diren jarduketei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, balio artistiko eta kulturala duten Nafarroako higiezinak kontserbatzeko behar diren jarduketei buruzkoa (10-22/PES-00194).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Balio artistiko eta kulturala duten Nafarroako higiezinak kontserbatzeko behar diren jarduketei dagokienez, hauxe jakin nahi dut:

- Haien kontserbazioa bermatzeko jarduketak behar dituzten Nafarroako higiezinaren zerrenda xehakaturik, jarduketan oraingo egoera, jarduketa beharrak eta jabea nor den zehaztuta.

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko igerilekuek bete beharreko higieze eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretua betetzeari buruzkoa.**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Foru Komunitateko igerilekuek bete beharreko higieze eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretua betetzeari buruzkoa (10-22/PES-00195).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak osorik bete al du Nafarroako Foru Komunitateko igerilekuek bete beharreko higieze eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretua?

Zer ekarpen egin du Nafarroako Gobernuak Nafarroako toki entitateei foru dekretua betetzea errazteko?

Iruñean, 2022ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces



## **Galdera, Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroaren (AKZ) informazioa Barne Arazoetako Ministerioaren mendeko beste polizia-zentro batzuekin koordinatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroaren (AKZ) informazioa Barne Arazoetako Ministerioaren mendeko beste polizia-zentro batzuekin koordinatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak informazio eskaera egin du (PES-00110), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

1.- Egia al da, polizia patruilen geolokalizazioaren bidezko koordinaketaz gain, lanean ari dela, polizia-zentralak, Guardia Zibilekoak (062) zein Polizia Nazionalekoak (091) denbora errealean irits daitezten Foruzaingo AKZren sistema informatikoan agertzen den informaziora?

Ez da halakorik aurreikusi. Lanean ari gara

AKZn erregistratzen diren gorabeheren tipifikazioan.

2.- Baiezkoan, izan al da horri begirako akordio berriren bat, orain arte aurreikusi gabea, eta nork hartu du?

Legegintzaldi honetan ez da horri buruz inolako akordiorik sinatu.

3.- Zer informazio mota eskualdatu nahi da polizia-zentral horietara eta zer kasu edo egoeratan?

AKZko kudeaketa sistemaren garapenean aurrera egiteko modua izaten denean, beste polizia kidego batzuen zentraletara helarazi ahalko den informazioa kasuan kasuko gorabeherari egoki erantzuteko beharrezkoak diren datuek osatuta egon liteke.

4.- Informazio eskualdaketa hori norabide guztietan ibiliko al da, alegia, Foruzaingo AKZtik gainerako polizietara eta, era berean, haietatik Foruzaingo AKZra, edo norabide bakarrekoa izanen al da, AKZk aukerarik eduki gabe 062 eta 091ko informaziora baldintza beretan iristeko?

Nafarroako Gobernuak Barne Zuzendaritza Nagusiaren planteamendua da informazioa bi norabidetan eskualdatzea, Foruzaingo AKZtik gainerako polizietara eta haietatik Nafarroako Foruzaingo AKZra. Administrazio publikoen arteko harremanetan funtsezkoak diren koordinazio egozia, lankidetzeta eta elkarlana izanen dira lan horren oinarriak.

5.- Informazioa Barne Arazoetako Ministerioaren menpeko polizia-zentral horien zerbitzuan denbora errealean jarriz gero, aurreikusi al da jarduketara eta koordinazio protokoloaren bat ezartzea edo itzuliko al da gara garai zaharretara, alegia, "gertalekura lehen iristen denak balizko atestatuaren instrukzioarekin geratzen da" horretara?

Une hauetan, Barne Zuzendaritza Nagusiaren irizpideak herritarrentzako zerbitzua lehenesten du, eraginkortasun eta efizientzia printzipioetan oinarritutako larrialdi-laguntza tarteko.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 24an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, Guardia Zibila Nafarroako Gobernuko larrialdi zerbitzuekin koordinatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Guardia Zibila Nafarroako Gobernuko larrialdi zerbitzuekin koordinatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak informazio-eskaera egin du (PES-00111), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

1.- Ohikoa al da Guardia Zibilak larrialdiko egoerak ezagutzen dituenen bere kasa aktibatzea dituen baliabideak, Nafarroako Gobernuko larrialdiko zerbitzuak (112) kontuan hartu gabe?

Deskribatutako jardunbide horrek legegintzaldiz legegintzaldi iraun duen arren, inoiz ez da ezer eraginkorrik egin egoerari buelta emateko.

Legegintzaldi honetan, hura detektatu zen unean, azterketa eta lan prozesu zorrotz bat hasi zen, larrialdietako laguntza eta kudeaketa lanen eraginkortasunik edo koordinaziorik eza ekar dezakeen edozein egoera saihesteko asmoz.

2.- Zein dira Nafarroako Gobernuko Barne Zuzendaritza Nagusiak ezagutzen dituen kasuak, bere menpeko larrialdi zerbitzuei alde zuzen jakinarazi gabe Guardia Zibilak baliabide berekiak aktibatzearen jarduketei buruzkoak?

Bat ere ez. Informazio guztia Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuetatik pasatzen da, eta komunikazioa arina eta jarraitua da.

3.- Egia al da 2022ko otsailaren 4an Guardia Zibilak dituen baliabideak aktibatu zituela Zangozan desagertutako pertsona bilatzeko eta bihar munera arte ez zuela eman larrialdiko egoera horren berri? Noiz jasotzen da Nafarroako 112 zerbitzuan desagertu horri buruz informatzeko Guardia Zibilaren deia?

Aipatutako gertaerarekin lotuta 112 Larrialdiak Kudeatzeko Zentroan jasotako lehenbiziko deia 2022ko otsailaren 4an erregistratu zen, 19:14:18an.

Iruñeko COSetik pertsona baten informazio medikoa eskatu zuten. Pertsona hori galduta zegoen 14:30etik.

Nafarroako Gobernuko larrialdi zerbitzuek gorabehera nola kudeatu zuten xehetasunez azaldu zitzaion galdera egin duen parlamentariari, 10-22/PEI-00225 informazio-eskaera parlamentarioaren erantzunean, hain zuzen. Lehenbiziko bi egunetan egindako komunikazio guztien laburpenen transkripzioa, nork esku hartu zuen, eta esku hartzeen orduak, helburuak eta funtsezko edukia azaldu zitzaizkion.

4.- Egia al da, halaber, Hiru Erregeen Mahaian desagertutako mendizalearen kasuan Guardia Zibilak bilaketarako dituen baliabideak Nafarroako 112 zenbakari ohartarazi gabe aktibatu zituela? Zenbat denbora iragan zen Guardia Zibila egitatearen jakitun izan zenetik hura Nafarroako larrialdietako zerbitzuei aditzera eman arte? Noiz jasotzen da Nafarroako 112 zerbitzuan desagertu horri buruz informatzeko Guardia Zibilaren deia?

Aipatutako gertaerarekin lotuta 112 SOS Nafarroa Ekintza Koordinaziorako Zentroan jasotako lehenbiziko deia 2022ko martxoaren 15ean erregistratu zen, 21:24an. Iruñeko COSetik jakinarazi zuten pertsona bat galdu egin zela Hiru Erregeen Mahaian. 112 Zerbitzuko gelako arduradunak laguntza eskaini zuen lehen unetik. Hala ere, COSetik adierazi zuten hasiera batean gertaeren berri eman besterik ez zutela eginen. Gero gainerako komunikazioak etorri ziren eta baliabideak lanean jartzen joan ziren esku-hartzea amaitu zen arte.

Nafarroako Gobernuko larrialdi zerbitzuek gorabehera nola kudeatu zuten xehetasunez azaldu zitzaion galdera egin duen parlamentariari, 10-22/PEI-00224 informazio-eskaera parlamentarioaren erantzunean, hain zuzen. Jasotako komunikazio guztien laburpenak transkribatu ziren, nork esku hartu zuen jakinarazi zitzaion, eta esku-hartzeen orduak, iraupena, helburuak eta funtsezko edukia azaldu zitzaizkion.

5.- Egia da, halaber, mendizale horren desagertuenean, Nafarroako erreskate zerbitzuak

Nafarroako Suhiltzaileen bidez aktibatze eskaintzak eta errekerimenduak egonda ere, Guardia Zibilak hainbatetan egin ziola uko Nafarroatik jarduteari?

Nafarroako Gobernuko larrialdi zerbitzuek gorabehera nola kudeatu zuten xehetasunez azaldu zaio galdera egin duen parlamentariari, 10-22/PEI-00224 informazio eskaera parlamentarioaren erantzunean. Jasotako komunikazio guztien laburpenak transkribatu ziren, nork esku hartu zuen jakinarazi zitzaion, eta esku-hartzeen orduak, iraupena, helburuak eta funtsezko edukia azaldu zitzaizkion.

6.- Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuko Barne Zuzendaritza Nagusiak ekidite aldera egoera horiek berriro gerta ez daitezen eta Guardia Zibilak bete egin ditzan Nafarroan pertsonen desagerpenei buruz onetsita dauden protokoloak?

Lan ildo bat hasi zen, protokolo batean bildu behar zituena eragile guztien rolak, jardunbideak argituz. Inoiz ez da halako protokolorik izan, ordea. Helburua da koordinaziorik edo eraginkortasunik gabeko egoerak saihestea Nafarroako Foru Komunitateko larrialdiei erantzutean eta haien kudeaketan. Larrialdiak kudeatzeko ardatz nagusitzat Nafarroako Foru Komunitatearen arau-esparrua eta eskumena aitortzen dituen protokolo bat baino ez da sinatuko.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 23an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía: Javier Remírez Apesteguía

## Galdera, Valle de Odieta SCLk “bio-abeltegia” hitza Caparrosoko abeltegitzarraz behar ez bezala erabiltzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Valle de Odieta SCLk “bio-abeltegia” hitza Caparrosoko abeltegitzarraz behar ez bezala erabiltzeari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Valle de Odieta SCLk “bio-abeltegia” hitza Caparrosoko abeltegitzarraz behar ez bezala erabiltzeari buruz (PES-00112). Hori dela eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.-Kontuan hartuz Valle de Odieta SCL oraindik ere ari dela “Enpresaren publizitatean produkzio ekologikoari buruzko terminologia behar ez bezala erabiltzen”, Departamentuak egiaztatu zuen bezala, eta 2021eko ekainaren 17an horren gaineko ohartarazpena egin zitzaionez, sinatzaileari erantzun zitzaionaren arabera, Departamentuak uste al du Caparrosoko abeltzaintzako instalazioaz “bio-abeltegia” hitzaren erabilera desegokian berrerortze horregatik zehapen-prozedura bat ireki ahalko litzatekeela?

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/848 (EB) Erregelamenduak (ekoizpen ekologikoari eta produktu ekologikoen etiketei buruzkoa, indarrik gabe uzten duena Kontseiluaren 834/2007 (EE) Erregelamendua), 3. artikuluan (Definizioak), 53. apartatuan, honela definitzen du publizitatea: produktuak jendeari aurkeztea etiketa ez beste edozein baliabide erabiliz, helburua edo ustezko ondorioa izanik jendearen jarreretan, iritzietan eta portaeran eragitea, produktuen salmenta sustatzeko, zuzenean edo zeharbidez. Bestalde, 30. artikulua (Ekoizpen ekologikoari buruzko terminoen erabilera) honako hau dio:

1. Erregelamendu honen ondorioetarako, produktu batek ekoizpen ekologikoari dagozkion terminoak erabiltzen dituela ulertu behar da baldin eta, etiketan, publizitatean edo agiri komertzialean produktua bera, haren osagaiak edo hura ekoizteko erabilitako pentsuen lehengaiak deskribatzen diren moduagatik, erosleari iradokitzen bazaio erregelamendu honi jarraituz ekoizti direla produktua bera, osagaiak edo pentsuetarako lehengaiak. Zehazki, IV. eranskinean zerrendatutako terminoak eta horien eratorriak eta laburdurak, hala nola «bio» edo «eko», bereiz nahiz konbinaturik, Europar Batasun osoan eta eranskin horretan zerrendatutako hizkuntzetatik edozeinetan erabiltzen ahalko dira 2. artikulua 1. apartatuan aipatzen diren produktuen etiketan eta publizitatean, erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen badute.

2. Bigarren artikulua 1. apartatuan aipatzen diren produktuen kasuan, artikulua honen 1. apartatuan aipatutako terminoak ez dira erabiliko, Europar Batasuneko ezein lekutan eta IV. eranskinean zerrendatutako hizkuntzetatik ezeinetan, erregelamendu honek xedatutakoa betetzen ez duten produktuen etiketak, publizitatea edo agiri komertzialak egiteko. Halaber ez dira etiketan eta publizitatean erabiliko marka erregistratuetan edo enpresen izenetan erabilitako terminoak, ez eta produktu batek edo haren osagaiak erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen dutela iradokiz kontsumitzaile edo erabiltzailea nahastu dezaketen praktikak ere.

Araudi horrekin bat etorritik, uste dugu adierazitako gertaerak, 2021eko ekainaren 17ko ohartarazpena baino geroagoak, ez direla hertsiki aipatu araudian ezarritakoaren kontrako ez-betetzeari, ekoizpen ekologikoari dagozkion terminoak etiketan edo enpresaren publizitatean bidegabeki erabiltzeari dagokionez. Izan ere, erabili da prentsako zenbait artikulutan eta itxuraz enpresaren barnekoa den dokumentazioan erabili da “bio-abeltegia” terminoa. Ez dirudi, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/848 (EB) Erregelamenduaren 3. artikulua (Definizioak) 53. apartatuan dagoen definizioaren arabera, zeina arestian aipatu baitugu, bidegabeko terminoak edo praktikak erabili direnik etiketan edo publizitatean, kontsumitzaile edo erabiltzailea nahastu dezaketenak, produktu bat

edo haren osagaiak ekoizpen ekologikokoak direla iradokiz.

2.- Ezezkoan, zer jarduketa edo erabaki aurreikusten du Departamentuak, ekidite aldera Valle de Odieta SCLk "bio-abeltegia" hitza erabiltzea prentsa-oharretan zein publizitateko liburuxketan edo prentsarako adierazpen publikoetan? Izan ere, sinatzaileari erantzun zitzaionaren arabera, jokabide horiek arau-hausteak izan zitezkeen, larri gisa tipifikatzen direnak Autonomiaz gaindiko lurralde-eremuetako jatorri deituri eta adierazpen geografiko babestuei buruzko maiatzaren 12ko 6/2015 Legearen 31. artikularen 1. apartatuaren f) letraren eta k) letraren arabera, ekoizpen ekologikoari aplikatzekoa 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren arabera.

2021eko ekainaren 17an, enpresari ohartarazi zitzaion ekoizpen ekologikoari dagozkion terminoak bidegabeki erabili zituela publizitate liburuxka batean, eta adierazi zitzaion arau-hauste larriak direla, besteak beste, honako hauek, Autonomiaz gaindiko lurralde-eremuetako jatorri deituri eta adierazpen geografiko babestuei buruzko maiatzaren 12ko 6/2015 Legearen arabera (ekoizpen ekologikoari aplikatzekoa, Nafarroako 2016rako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren indarrez):

- Lege honetan araututako produktuen etiketa, aurkezpena edo publizitatea egitean BJDaren edo AGBaren araudi zehatzean ezarritakoa betetzen ez duten edo nahasketa sor dezaketen izendapenak, adierazpenak, kalifikazioak, esamoldeak edo zeinuak erabiltzea, arau-hauste oso astunetan aurreikusitako kasuetan salbu.

- BJDaren edo AGBaren arau zehatzak ez betetzea ezaugarriari, ekoizpenari, elaborazioari, eraldaketari, kontserbazioari, biltegitzeari, garraioari, etiketatuari, ontziratzeari edo aurkezpenari dagokienez.

Ohartarazpen horretan Valle de Odieta SCL enpresari adierazten zaio 6/2015 Legearen 34. artikuluari jarraituz arau-hauste larriari 2.000,01 eta 30.000 euro bitarteko isuna dagokiela eta arau-hauste horiek behin eta berriz egitea berrerortzetzat joko litzatekeela ezar litekeen zehapena erabakitzerakoan. Hala ere, ez dugu uste adierazitako gertaerak, 2021eko ekainaren 17ko ohartarazpena baino geroagokoak, aipatu araudian ezarritakoaren kontrako ez-betetzea direnik hertsiki, ekoizpen ekologikoari dagozkion terminoak etiketatetan edo enpresaren publizitatean bidegabeki erabiltzeari dagokionez. Izan ere, prentsako zenbait artikulutan eta itxuraz enpresa barnekoa den dokumentazioan erabili da "bio-abeltegia" terminoa.

3.- Valle de Odieta SCLri enpresaren publizitatean produkzio ekologikoari buruzko terminologia behar ez bezala erabiltzeari buruz berriro ohartarazi baino ez da eginen, edo beste erabaki batzuk hartuko al dira, ekidite aldera merkataritza-sozietate horrek entzungor jarrai dezan Departamentuaren ohartarazpenen aurrean?

Baldin eta, departamentu honetako zerbitzu teknikoan iritziz, Valle de Odieta SCL enpresak arau-hauste larriak egiten baditu, horrela tipifikatuak Autonomiaz gaindiko lurralde-eremuetako jatorri deituri eta adierazpen geografiko babestuei buruzko maiatzaren 12ko 6/2015 Legearen 31. artikularen 1. apartatuaren f) letran eta k) letran (ekoizpen ekologikoari aplikatzekoa 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren arabera), zehapen espedientea hasiko da, kontuan harturik ezen, ez-betetze horiek arau-hauste larritzat jotzen badira, 6/2015 Legearen 34. artikuluari jarraituz 2.000,01 eta 30.000 euro bitarteko isuna dagokiela, eta arau-hauste horiek behin eta berriz egitea berrerortzetzat joko litzatekeela ezar litekeen zehapena erabakitzerakoan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## Galdera, Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22-PES-00113); haren bitartez, informazioa eskatzen du Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko zirriborroa izateari buruz. Honako hau da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1- Zer dokumentu daude zehazki, aurreko legegintzaldian prestatuak, Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeari dagokionez?

Badira Osasun Departamentuaren artxiboetan gaiarekin zerikusia duten zenbait dokumentu, aurreko legegintzaldian prestatuak, zehazki.

2- Dokumenturen bat al dago, zirriborroa bada ere, legegintzaldi honetan prestatua, Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeari dagokionez?

Ez.

3- Zer aurreikuspen du Osasun Departamentuak, legegintzaldi honetan Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeari dagokionez?

Legegintzaldiko une honetan, eta oraindik kudeatzeko daudelarik COVID-19aren pandemiako hurrenez hurreneko sei olatuetan atzeratuz joan diren gaiak, aferak eta lehentasunak, eta ez horiek bakarrik, baita pandemiako hurrengo aste eta hilabeteetako eboluzioari buruzko gainerako zalantzak eta erronkak ere, ez dirudi modurik dagoenik osasunari buruzko foru lege bat prestatu, negoziatu eta onesteko, Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Lege indardunean dagoen arau-esparrua berritu eta eguneratuko duena. Osasunaren arloko egungo arau-esparrua aldatu ahal izateko, funtsezko bi baldintza bete behar lirateke, gutxienez: batetik, arau berriak hobetu eta gaurkotu egin behar lituzke egungo arauaren edukiak, eta horretako gutxieneko prestatze eta egokitze aldia behar da, ukitutako eragile eta interes-taldeekin kontsultatu eta negoziatzeko prozesuaz gain; eta bestetik, baldintzak bete behar dira akordio politiko bat lortzeko Nafarroako Parlamentuko talde guztien artean, ahal dela, edo zeharkako gehiengo zabal-zabal bat behintzat, aipagai dugun eta gaur egun indarrean dagoen foru legearekin gertatu zen bezala. Osasun Departamentua prest dago bide horretan elkarlanean aritzeko eremu parlamentarioan, inplikaturako eragileekin batera.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna



## Galdera, Lan Osasunaren Planari (2015-2020) eta Lan Osasunaren Ekin-tza Planari (2017-2020) buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku-luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lan Osasunaren Planari (2015-2020) eta Lan Osasu-naren Ekintza Planari (2017-2020) buruzkoa. Gal-dera 2022ko apirilaren 22ko 50. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22-PES-00114 idatzizko galdera aurkeztu du, zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu Lan Osasunaren Planaz (2015-2020). Hona Nafarroa-ko Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1.- Zer gai zehaztetan iruditzen zaio Osasun kontseilariari Lan Osasunaren Plana (2015-2020) abiarazten zaila dela?

Lan Osasunaren Plana (2015-2020) plan oro-korra zen, garatu beharreko jarduketak zehaztu gabe uzten zituena. Haren IX. tituluaren (55. or.) hau irakur daiteke:

“Hemendik aurrera lantalde bat sortuko da, eta, lehendabizi, dokumentuan bildutako ekintza zehaztetako bakoitza inplementatzeko egutegia ezarriko du, kontuan izanda ekintza bakoitzaren lehentasun maila, parte hartzen duten unitateak, arduradunak eta gauzatzeko epea. Lortu beharreko betetze-adierazleak eta helmugak ezartzen ahalko dira”

Aurreko legegintzaldia bukatu baino lehen prestatu zen plana, eta parte hartu zuten Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Ins-titutuko lan osasunaren arloko bi zerbitzu-arduradunek. Hurrengo Gobernuak –hauteskunde autonomikoen ondoren gobernu aldaketa izan bai-tzen– lan egin zuen zerbitzuko profesionalek parte har zezaten martxan jartze horretan. Lan Osasu-naren Plana egiteko abiapuntu eta helburutzat hartu da Lan Osasunaren Zerbitzuaren lan-ildoen garapena; eta Ekintza Planak, zeina parte hartuz garatu baita, aurrera egin nahi du beste adminis-

trazio batzuk eta prebentzioaren beste protagonis-ta batzuk aurreikusitako jarduketetan inplikatze-ko bidean.

2.- Zer adierazle zehatz iruditzen zaio desego-ki eta Lan Osasunaren Planeko (2015-2020) edo Ekintza Planeko (2017-2020) zer dokumentu zehaztetan?

Lan Osasunaren Planak proposatzen zuen gerora zehaztu zitezela adierazleak. Adierazleok 2017-2020 aldirako Ekintza Planean xehakatu dira, eta haien ebaluazio eta hobekuntza balora-zio zientifiko bat da, hurrengo lantaldeei lagundu behar diena adierazle egokiak ote diren hausnar-tzen.

3.- Orain arte Osasun Departamentuko inongo dokumentu estrategiko edo planteamendutan ez da inoiz proposatu lan osasunaren plana edo lan osasuneko ekintza plana aldatzea edo berri bat egitea aurrekoen indarraldia amaitu aurretik. Zer-gatik ez zenuen proposatu desegokiak iruditzen bazitzaizkizun? Zergatik itxoin duzu hain luze haiek aldatzeko, 2022ko apirilean gaudelarik eta lan osasunaren plan berri eduki gabe 2015etik, orduko plan hori kontseilariaren ustez aplikatzen zaila izaki?

Lan Osasunaren Plana egokitzea hasiera-hasieratik proposatu zuten Lan Osasunaren Zerbi-tzuko arduradun berriek. Haren hitzaurrean jasorik dagoenez, aurreko gobernuak onetsitako Lan Osasunaren Planeko ildo estrategikoak bildu ziren, eta berriz baloratu zen Garapen Ekonomi-korako Departamentuaren planetan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Espainiako Estrate-gian eta Gizarte Segurantzaren eta Lan Ikuska-tzaitzaren Jarduketan Planean aurreikusitako helburuak eta ildoak jaso eta lehenesteko aukera.

Ekintza Planeko hitzaurreak dioten bezala, hori guztia parte-hartze prozesu zabal batean jorratu zen. Lan Osasunaren Zerbitzuko, Garapen Eko-nomikorako Departamentuko eta Nafarroako Laneko Osasunaren Kontseiluko profesionalek parte hartu zuten.

4.- Plan guztiak aldatzen diren inguruabarreta-ra egokitu behar dira. 2015etik 2021era bitarte, Nafarroa da baja dakarten istripuen indizea gehien areagotu den erkidegoa. 2015-2020 Pla-nari eta 2017-2020 Ekintza Planari buruzko hasie-rako balorazioa gorabehera, zergatik ez dituzue 3

urtetan zehar aldatu aipatu planetan markatutako ildoak?

Ekintza Planean ezarritakoaren aldean zer aldaketa egin diren zehatz-mehatz azaltzeko asmorik gabe, egindako jarduketa batzuk azpimarratuko dira. Hala, Nafarroako Laneko Osasunaren Kontseiluan proiektu ugari aurkeztu dira istripuen eboluzioaren arabera. Hain zuzen ere, Istripuen Prebentziorako Unitate berria eratu zen, eta horretarako aldatu egin zen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontratatu beharreko balizko titulazioen zerrenda, lehenbiziko aldiz sartzeko Lanbide Arriskuen Prebentzioko goi mailako teknikariak (LHII). Horrek ahalbidetu zuen bisita kanpaina bat egitea EJSNko lehenasunezko ataletako enpresetan, beren lan eta okupazio istripuen kopuru handiagoagatik hautatuak. Ez zen lehenago inoiz horrelakorik egin.

Gainera, ALIP proiektua garatu zen, prebentziorako interes berezia zuten istripu arinen ikerketak berrikusiz. Horrela jakin zen ikerketa horiek ez direla egokiro egiten enpresa gehienetan, eta egoera zuzentzeko beharra jaso ahal izan da 2022-2025 aldirako Lan Osasunaren Planaren zirriburuan.

Bestalde, aurreikusi gabeko beste jarduketa batzuk egin ziren, Estatuko jardunaldiak, esaterako; gure kasuan, Estatuan lehen aldiz, lan osasuna eta osasun publikoa uztartzeko beharrari buruz aritzea erabaki genuen. Ia autonomia erkidego guztietako, Osasun Ministerioko eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalako lan eta osasun zuzendaritza nagusiek parte hartu zuten.

Kanpainak ere egin ziren, hala nola "Prebentzioan funtsezko pieza zara" izenekoa edo amilteeen prebentziokoa, eta lan istripuetarako alertak prestatu ziren, aurreikusi gabeak baina beharrezkotzat jotzen zirenak 2012tik hasita estatu mailan laneko istripuen indizeek izandako gora-

kadari aurre egiteko. Egiaztatu zen, halaber, aldatu egin behar zirela istripuei buruzko urteroko txostenak, lan istripuak eragiten dituzten arrisku faktoreak sakonago ezagutzeko. Jarduketa hori ere ez zegoen aurreikusita Ekintza Planean. Egindako aldaketak, beste aldaketa batzuekin batera, behar bezala jakinarazi eta eztabaidatu ziren Nafarroako Laneko Osasunaren Kontseiluan.

Bistan denez, ahalegina egin da Ekintza Plana egokitzeko egoera aldatu ahala eta lanaren mundu konplexu eta aldakorrean premia berriak sortu ahala, eboluzio horrek arriskuen eta, beraz, kalteen iraupena eta sorrera aldarazten baititu. Lan merkatuaren bilakaeraz ari gara, ziklo ekonomikoaren fase hedakorraz, langabezia maila handiez, sindikatuek lan harremanetan izandako ituntze ahalmenaren ahultzeaz, azpikontratazio eta enpresen mikronizazio orokortuez, arrisku handieneko industriaren pisu handia duen ekoizpen-egituraz, behin-behinekotasun handiko eta kaleratze errazeko enplegu-baldintzez eta abarrekoek. Horri gehitu ahal litzaioke gogoeta egin behar dela enpresetan komeni ote den prebentzio sistemaren eredu mistoa izatea, propioaren eta kanpokoaren arteko erdibidean.

Horregatik guztiagatik, administrazio publikoen eta eragile sozialen ahalegina mantendu eta areagotu beharra dago lan osasunaren arloan, aipatu inguruabarren eraginari aurre egiteko, haietako askok azaltzen baitute, neurri batean, laneko istripuei buruzko datuen bilakaera negatiboa. Beti bezala, Osasun Departamentua irekita dago, bere arloetako edozeinetan jarduketak hobetzeko bidea eman dezaketen proposamen eta ekarpen eraikitzaileak hartzeko prest.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, kontu-hartzailletza delegatuak FPP2 maskaren hornidura-kontratu bat dela-eta emandako eragozpen-oharrari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kontu-hartzailletza delegatuak FPP2 maskaren hornidura-kontratu bat dela-eta emandako eragozpen-oharrari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 2196 irteera-zenbakiarekin erregis-

tratua, 2022ko apirilaren 11n (10-22/PES-116 galdera), FPP2 maskaren hornidura-kontratu bat dela-eta Kontu-hartzailletza Orokorren txostena egiteari eta Gardentasun Atarian argitaratzeari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

Kontu-hartzailletza Orokorrek duela gutxi egin du txostena. Hala ere, prozedura hori Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 102. artikuluari jarraituz ebatzi arte ez da txostena argitaratuko Gobernu Irekiaren Gardentasun Atarian.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

---

## **Galdera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean guztira jasotzen diren hobarien zenbatekoei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean guztira jasotzen diren hobarien zenbatekoei buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 2197 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko apirilaren 11n (10-22/PES-117 galdera), Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean guztira jasotzen diren hobarien zenbatekoei buruz, "Etxebizitzak errentan ematen diharduten entitateak" izeneko IV. kapituluari dagokionez. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Errenta hobaridunak (euroak)	
7538 laukia	
2007	-
2008	-
2009	1.324.140,34
2010	1.628.419,39
2011	1.843.128,14
2012	1.379.556,86
2013	1.143.001,67
2014	1.822.618,69
2015	1.907.556,93
2016	1.796.009,59
2017	2.683.298,10
2018	3.421.376,58
2019	2.914.916,28
2020	3.502.434,05

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 30eko 35/2003 Foru Legeak, 2004ko urtarrilaren 1etik

aurrerako eraginarekin, sozietateen gaineko zerga araubide berezi berri bat ezarri zuen etxebizitzak alokatzea xede sozial bakarra duten entitateentzat; hain zuzen ere, hobari bat, errentamendu jarduera horren etekinetatik ateratzen den zerga-kuotan.

Behean azaltzen diren datuak sozietateen gaineko zergaren aitopenetan jasotako datuen batera agregatua dira (aitopena bateratze fiskaleko araubidean aurkezten ez duten zergadunena). Errenta hobariduntzat hartu da 7538 laukian ("Errenta hobariduna") jasotako errenta positiboa, aitortua edo likidatua. 2009. urtetik aurrerako datuak eskaintzen dira, aurreko urteetan ez zegoelako horrelako laukirik aitopenean.

Hobarien guztizko zenbatekoak honako hauek dira, 2009tik aurrera, ekitaldiz ekitaldi:

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## **Galdera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean aurreikusitako hobariak diru-sarrera fiskaletan eragin duten murrizketari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean aurreikusitako hobariak diru-sarrera fiskaletan eragin duten murrizketari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 2198 irteera-zenbakiarekin

erregistratua, 2022ko apirilaren 11n (10-22/PES118 galdera), Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeak "Etxebizitzak errentan ematen diharduten entitateak" izeneko IV. kapituluaren aurreikusten dituen hobariak diru-sarrera fiskaletan eragin duten murrizketari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 30eko 35/2003 Foru Legeak, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, sozietateen gaineko zerga araubide berezi berri bat ezarri zuen etxebizitzak alokatzea xede sozial bakarra duten entitateentzat; hain zuzen ere, hobari bat, errentamendu jarduera horren etekinetatik ateratzen den zerga-kuotan.

Behean azaltzen diren datuak sozietateen gaineko zergaren aitopenetan jasotako datuen batura agregatua dira (aitorpena bateratze fiskaleko araubidean aurkezten ez duten zergadunena). Hobaritzat hartu da 18 laukian ("Etxebizitzak errentan ematen diharduten entitateentzako hobariak") aitortu edo likidatutako zenbatekoa. 2007. urtetik aurrerako datuak eskaintzen dira, aurreko urteetan ez zegoelako horrelako laukirik aitortu.

Hobarrien zenbatekoak honako hauek dira, 2007tik aurrera, ekitaldiz ekitaldi:

Hobaria (euroak)	
18 laukia	
2007	424.899,67
2008	390.133,60
2009	326.158,39
2010	397.317,56

2011	446.186,21
2012	386.758,37
2013	362.648,82
2014	506.251,33
2015	455.586,45
2016	434.816,50
2017	635.219,72
2018	817.449,06
2019	708.660,28
2020	848.389,70

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## Galdera, Osasun Departamentuak osasun arloan egindako 2021eko gogobetetasun-inkestari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Departamentuak osasun arloan egindako 2021eko gogobetetasun-inkestari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00123), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

- 1.- Zer prozedura erabili da inkesta esleitzeko?
- 2.- Aurrekontua balizko adjudikaziodun batzuei eskatu al zitzaien?
- 3.- Nori esleitu zaio?

4.- Nork gidatu du prozesua Osasun Departamentuan?

5.- Zer metodologia erabili da lagina hautatzeko, inkesta egiteko eta emaitzak ustiatzeko?

6.- Nork egin ditu telefono bidezko inkestak? Zenbat egin dira? Zenbat galdu dira eta zergatik?

7.- Nork eta nola ikuskatu ditu emaitzak?

8.- Nork eta nola ustiatu du informazioa?

9.- Nork prestatu du argitaratu den emaitzen txostena?

10.- Galderaren baten testua aldatu al da aurreko inkestekin alderatuta? Zein eta zergatik?

Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1.- Zer prozedura erabili da inkesta esleitzeko?

Kontratazio espedientea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2021ean artatutako herritarrei gogobetetasun inkestak egiteko eta lortutako datuak ustiatzeko kontratua esleitzeko,

tramitazio arruntaren eta Europar Batasuneko atalasetik beherako prozedura irekiaren bidez.

2.- Aurrekontua balizko adjudikaziodun batzuei eskatu al zitzaien?

Lehiaketa publikoetan ez da aurrekonturik eskatzen. Prozedura, kontratazioaren atarian argitaratuta, eskaintzak aurkeztu nahi dituzten lizitatzaille guztientzat irekita dago.

3.- Nori esleitu zaio?

Centro de Observación y Teledetección Espacial SAU (COTESA)

enpresari. IFZ: A47461066.

Kontratazioari buruzko informazioa eskura dago Nafarroako Atarian: [https://hacienda.navarra.es/sicportal/mtoAnunciosModalidad.aspx?](https://hacienda.navarra.es/sicportal/mtoAnunciosModalidad.aspx?Cod=2103301405507E3A435A)

Cod=2103301405507E3A435A

4.- Nork gidatu du prozesua Osasun Departamentuan?

Herritarren eta Erien Arretarako Zerbitzuak.

5.- Zer metodologia erabili da lagina hautatzeko, inkesta egiteko eta emaitzak ustiatzeko?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko (hemendik aurrera, O-NOZ) Herritarren eta Erien Arretarako Zerbitzuak eskaini du gogobetetasun azterketarako lagina. Osasun barrutietan 2021eko irailaren 1etik 16ra bitartean arreta jaso duten pertsonen inguruko informazioa eman du.

Azterketaren helburua izan da 6.824 inkesta egitea guztira, O-NOZ osatzen duten osasun barrutietan eta arreta zerbitzuetan banatuak. Horretarako, pertsona kopuru hori sartu da lagin titularrean, eta ia beste horrenbeste ordezkari hartu dira, lagin titularrekoak ordeztu ahal izateko, gora-beheraren bat gertatuz gero (ezezkoa, kontakturik eza, heriotza, etab.).

Orotara, O-NOZek eskainitako laginean 12.393 paziente sartu dira. Ausaz atera dira SQL SERVER sistemaren bidez, 2021eko irailaren 1etik 16ra bitartean arreta modalitate guztietan artatutako pertsonen artetik. Honela diseinatu da landa-lana:

a) Herritarrei aurkezpen gutuna bidaltzea, gaztelaniaz eta euskaraz, laguntza eske, azterlanaren helburuak betetzeko. Gutun horretan adierazi zen erantzunak isilpekoak izanzen zirela, eta zein zen azterlanaren helburua, eta 900 telefono-zenbaki bat eskaini zen zalantzak argitzeko.

b) Guztira 12 galde-sorta aplikatzea. Elkarrizketak telefonoz egin ziren, CATI (Computer Assisted Telephone Interview) sistema erabiliz.

c) Lagineko paziente batzuk 16 urtetik beherakoak ziren, eta gurasoekin egin zen elkarrizketa. Beste batzuek elkarrizketa zailtzen zuen desgaitasunen bat zuten (gorrak, pertsona oso zaharrak edo arazo psikikoak zituzten pazienteak, besteak beste), eta hurbileko ahaide batengana jo zen elkarrizketa egiteko.

Emaitzen ustiapenari buruzko informazioa baldintza teknikoaren agiriaren 39. orrialdean dago. B eranskina (Datuen ustiapena eta txostenak). Hemen dago: <https://hacienda.navarra.es/sicportal/mtoAnunciosModalidad.aspx?Cod=2103301405507E3A435A>

6.- Nork egin ditu telefono bidezko inkestak? Zenbat egin dira? Zenbat galdu dira eta zergatik?

Kontratuaren adjudikazioa jaso duen enpresak egin ditu.

Kontratuaren eskatutako inkesta kopurua egin da, hau da, 6.824, eta bat ere ez da galdu, behar adinako lagina erabili delako, aurreko erantzunean azaldu den moduan.

7.- Nork eta nola ikuskatu ditu emaitzak?

Zerbitzu arduradunak (Herritarren eta Erien Arretarako Zerbitzua) gainbegiratu ditu prozesuko fase guztiak.

8.- Nork eta nola ustiatu du informazioa?

Enpresa adjudikaziodunak, kontratazio agirian ezarrita dagoen bezala.

9.- Nork prestatu du argitaratu den emaitzen txostena?

Herritarren eta Erien Arretarako Zerbitzuak.

10.- Galderaren baten testua aldatu al da aurreko inkestekin alderatuta? Zein eta zergatik?

Lehenengo galde-sorta mota berak erabili dira, aurreko urteetako emaitzak erkatu ahal izateko.

Oraingoan gizarte-lanaren lanbide gaitasunari eta tratuari buruzko balorazioak gehitu dira halakorik ez zuten galde-sortetan (sarreraren eta Osasun Mentaleko zentroyen galde-sorta).

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna



## **Galdera, Ukrainako egoerara bideratutako dohaintzei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ukrainako egoerara bideratutako dohaintzei buruz Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko apirilaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00128). Hona hemen

Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak ez du inolako dohaintza ekonomikorik egin.

2.- Ez da egia. Nafarroako Gobernuak dio Kanpo Arazoetarako, Europar Batasunerako eta Lankidetzarako Ministerioaren gomendioak bete behar direla Ukrainaren mugakide diren herrialdeetan jarduketak egiteari dagokionez, eta lurralde horietan lanean urteak daramatzaten erakunde humanitario akreditatuen bitartez bideratu behar direla laguntzak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 20an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## **Galdera, Estudios Melitón SL merkataritza-enpresari instalazioak errentan hartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Estudios Melitón SL merkataritza-enpresari instalazioak errentan hartzeari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak 10-22/PES-00132 galdera idatzia egin du. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoe-tako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

- Nasuvinsak 2019ko azaroaren 7an jarri zituen Estudios Melitón SL enpresaren eskura errentan emandako instalazioak.

- Estudios Melitón SLk ordaindu beharreko errentak, egun horretatik hasi eta 2021eko abendura arte, proiektua idazteko eta obra zuzentzeko ordainsari teknikoen gastuei egotzi zitzaizkien. Nasuvinsari zegokion gastu horiek ordaintzea, eta Estudios Melitón SLk ordaindu zituen. Guztira 59.900 euro izan ziren.

- Errentariak ez du orain arte errentarik ordaindu, gabealdiaren luzapena eskatu delako.

- Azkenik, Nasuvinsak instalazioen obrak egi-teagatik guztira ordaindutako kostu osoa 1.275.986,82 euro izan da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 20an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoe-tako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## **Galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko diseinatu duen programari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko diseinatu duen programari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak 10-22/PES-00133 galdera idatzia aurkeztu du, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: “Zer neurri ezarri nahi ditu Nafarroako Gobernuak lortze aldera ahalik eta enpresa gehien atxikitzeko programa horri? (‘Enpresaren kudeaketan prebentzioa txertatzeko programa’)”. Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak eman beharreko informazioa:

NOPLOIko Lan Osasunaren Zerbitzuak egindako proposamena, urratsez urrats, programaren kronogramaren arabera (2022-2025)

Informazioa. Programaren aurkezpena. Enpresak eta langileak programari atxikitzeko sustapena. Emaizten aurkezpena eta hedapena.

– Nafarroako Laneko Osasunaren Kontseiluaren bilerak (2022-05-09an eta ekainaren amaieran).

– Jardunaldi orokorra enpresaburuekin

– Enpresaburuen bileretara joatea, programaz hitz egiteko 20 minutuko tartea eman diezaguten

– Azterketa pilotuen emaitzak partekatzea. Zabalkunderako jardunaldia

– Jardunaldia sindikatuekin eta prebentzio arloko ordezkariekin

– Prebentzio arloko ordezkari berrientzako ikastaroan programa sartzea

– Integrazio programaren hedapena mutuen prebentzio jardueretan sartzea

– Oinarrizko prebentzio ikastaroa (doakoa) eta laneko arriskuen prebentzioa hobetzeko tresnak eskaintzea

Osasun agentearen balizko figuraren bideragarritasuna eta egokitasuna aztertzea, finantzaketa kontuan hartuz. Programaren fase guztietan lagunduko luke, bertatik bertara, enpresa txikienetan (6 langile baino gutxiago).

Aitormena

– Programan parte hartu izana aintzat hartzea (lehentasunezko sarbidea ematea) administrazio publikoen laguntza eta dirulaguntzetarako baremoetan eta Administrazio Publikoarekiko kontratuak egiterakoan.

– Parte-hartzaileentzako zigilua, eta enpresa parte-hartzaileen zerrendaren hedapena (jardunbide egokien aitormen publikoa)

– Gizarte erantzukizun korporatiboa (GEK) aldarrikatzea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 18an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

